

egun-pasa

Baztango bailararen magia

Eguneroko estresa alde batera utzi eta la-saitu nahi duenarentzat leku ezin apro-posagoa da Baztango bailara. Mendien edertasuna, herri txikien dotorezia, ja-kien gozotasuna, jendearen jatortasu-na... Makina bat dira bailara honek es-kaintzen dituen aukerak. Elizondo da Baztango bailarako hiriburua, eta derri-gorrez bisitatu beharrekoa. Baztan ibaiak

erdi-erditik zeharkatzen du Elizondo, eta etxe eta eraikuntza dotoreak ikus daitez-ke bertan, besteak beste, Arizkunenea jauregia eta udaletxea bera. Nolanahi ere, Berroeta, Aniz, Ziga, Irurita, Elbetea, Arizkun, Erratzu eta Amaiur herri txikiak ere ikusteko modukoak dira, zalantzarik gabe. Halaber, Behe Nafarroako mugan jada, Urdax eta Zugarramurdiko herriak ditugu. Azken hori bere kobazulo fama-tuengatik aski ezaguna dena.



EGUNKARIA

DEBA. 'Autodeterminazio eskubidea gaur egungo egoeran nola gauzatu'. Gaur, arratsaldeko 20:00etan, Debako gaztetxean.

GASTEIZ. 'El islamismo, la rebelio revelada'. Gaur, arratsaldeko 20:30ean, Hikaateneoan.

GERNIKA. 'Garapen jasangarriari buruzko Urdaibaiko jardunaldiak'. Gaur, Elai-Alai aretoan. Informazioa gehiago nahi duenak honako telefono honetan eskuratu dezake: 944276432.

IRUÑEA. 'Karlismoa, mugimenduaren historia'. Gaur, Jordi Kanak irakaslearen eskutik, Irujo Etxea elkartean.

'Palestina'. Gaur, arratsaldeko 19:30etan, Zabaldiko aretoan (Nabarrerria 25). Tamer Bilawiren eskutik.

MUSKIZ. 'Euskal Herriko musika tresnak'. Gaur, Kultur Etxean, 10:00etan eta 12:00etan.

ZUMAIA. 'Euskal zibilizaioa'. Gaur, Oxford aretoan, arratsaldeko 19:30ean, Alfonso Martinez Lizarduiren eskutik.

ikus-entzunezkoak

GERNIKA. 'Shiner' filma. Gaur, arratsaldeko 20:30etan. Elai-Alai aretoan.

ELORRIO. 'Celos'. Bihar, arratsaldeko 17:30etan, Arriola Kultur Aretoan. m m

IRUÑEA. 'Euskarazko film laburren II lehiaketa'.

Proposamenak Iruñeko Karrikiri elkartearen egoitzan aurkeztu behar dira abenduaren 15a bitartean (Tel: 948222589).

ORDIZIA. 'Laburmetrai emanaldia'. Gaur, arratsaldeko 20:00etan, Barrena kultur etxean.

bestelakoak

BILBO. Juan Tamariz. Gaur eta bihar, arratsaldeko 20:00etan, Euskalduna Jauregian.

BERMEO. 'Zikoinaren hegaldia' errezitaldia. Gaur, arratsaldeko 20:00etan, Kultur Aretoan, Patxi Zubizarretaren eskutik.

DONOSTIA. 'Euskadi Internet'. Gaur, Kurtaal aretoan, hitzaldiak, erakusketa, ...

GASTEIZ. 'Gaztain erre jaia'.

erakusketa

'Gure Irratiak 20 urte' Baionan, Gure Irratiaren egoitzan, abenduaren 30a arte

Eneko Bidegain | BAIONA

Oroitzapen zaharrak, egoitza berrietan. Gure Irratiaren hogeit urteen erakusketa antolatu dute, irratiak Baionan duen egoitzan, Poissonnerie karrikan. Lehenbiziko teknika mahaiak, lehengo disko beltzen irakurgailuak, Moisen denborako tresna zahar batzuen gisa ageri dira. Alta, holakoekin hasi ziren, duela hogeit urte, ahal bezala, euskaraz emititzen. Iraultza bat zen hura. Orain, Baionako auza-peza ere etortzen da Gure Irratiaren zoriontzera; herenegun, erakusketaren estreina ekitaldian, hain zuzen ere.

Azken hogeit urteetan Gure Irratiak atera afitxak zintzilik daude, historia aberats baten lekuko. Argazkiak ere bai, hainbat egoera eta lagunen oroigarri. Besteak beste Jean-Louis Causade animatzaile zenaren aurpegiak argitzen ditu estudioak.

Milafrangatik, Baionara. Baionako estudio txikiegietatik egoitza berrira nola aldatu zen gogora ekartzen du erakusketak. Gure Irratiko berriketari eta animatzaileak mikroen ordez



GAIZKA IROZ

Jean Grenet, Agus Hernan, Luzien Etxezaharreta eta Dani Duhalde, erakusketaren aurkezpenean.

eskorgekin lanean ageri dira. Garai bateko «apustu eroa» proiektu sendo bihurtu duten langileak eta laguntzaileak eskertu zituzten herenegun.

Orain, irratiak begiak geroari buruz itzuli ditu. 20 urteen ospakizunek aitzina jarraituko dute. Abenduaren 6tik 9ra, kongresu bat iraganen da Miarritzen.

Abenduaren 20an irrati berri bat abiatuko dute Hendaian. Abenduaren 22an, kantaldia iraganen da Baionan; eta 30ean, programazio berria abiatuko da.

erakusketak

aurreko aretoan.

USURBIL. Kulk herri kirolen eta haserri jolasen jaia. Bihar, arratsaldeko 16:00etan.

BAIONA. 'Gure irratiak 20 urte'.

Gure Irratiaren egoitzan, abenduaren 30a bitartean.

BILBO. 'Olio erakusketa'.

Azaroaren 29a arte, Liburuaren Etxean. Maria Angeles Samaniego.

'Pedro Txillidaren margolanak'. Abenduaren 3a bitartean, Deustuko CMDn.

DONOSTIA. 'Amazonia. Informe Yana Curi-Oro Negro'. Azaroaren 8tik 25era, Medicus Mundik antolatutako erakusketa eta Manuel Carlon fotokazetariaren lanak ikusgai.

'Margoak eta ilustrazioak'.

Azaroaren 12tik 30a arte, Eva Garcesen lana Loiola Kultur Etxean.

'Instalaciones'. Azaroaren 1etik 30era, Pamen Pereiraren lana, Altxerri Galerian.

Lopez Herrera. Azaroaren 1etik 30era, olio lanak ikusgai Etxeberria Galerian.

'On egin dagizula' bitxi diseinatzaileen lanak.

Abenduaren 11 arte, Istra dendan, Kurssaalean.

HONDARRIBIA. Bidasoako margolariak. Azaroaren 9tik 23ra, Zuloaga etxean.

LEGAZPI. 'Natura'.

Abenduaren 2a arte, Gorka Salmeronen argazkiak Bikuña Jauregian.

Ikatza Argazkilari Elkarte.

Azaroaren 23a arte, Kultur Etxean.

Astelehenetik ostiralera, 17:30etik 20:30era.

LESACA. Kepa Pikabea, euskal preso politikoaren margoak. Abenduaren 2a arte, Arrano kultur elkartean.

ZARAUZ. IX. Nazioarteko Argazki Mostra. Azaroaren 9tik abenduaren 9ra, Torre Luzean.

ZUMARRAGA. Kamerungo eskulaneen erakusketa. Azaroaren 23tik, abenduaren 2ra, Irate Etxean. Astelehenetik ostiralera 18:30etik, 21:00etara. Asteburuan, 12:00etatik 14:00etara, eta 18:30tik, 21:00etara.

ikastaroak

BILBO. Tango ikastaroak.

Tangoaren oinarriko pausuk ikasteko, Garua elkartearen eskutik. Uda garaian, Café Boulevard-eko lehenengo solairuan, ostiralero eta hileroko lehen larunbatetan, 23:00etatik aurrera.

ELGOIBAR. Panpinen manipulazio ikastaroa. Azaroak 23, 24 eta 25ean, Taupadaren aretoan, Beñat Lefeverren eskutik (Baionako Gortari antzerkiko kidea). Informazio gehiago honako telefono heonetan eskuratu ahal izango duzue: 943-74 36 55.

IRUÑEA. Eguzki Irrati librean parte hartzeko deialdia. Irratian kolaboratu edo parte hartu nahi duten guztiandako. Astelehenetik ostegunera, 19:00etatik 21:00etara Nabarrerria kaleko 6. atariko 1. etxebizitzan galdetu.